

26

-Z GERO

Euskal gramatikan baldintzako perpausak egiteko dagoen era arruntenetako bat, aditz adjektiboari *-(e)z gero* posposizioa eranstea da:

Lana eginez gero, behar den bezala ordainduko dizute.

Era berean, posposizio berberaz eta aditz jokatu batekin batera perpaus kausalak egin ditzakegu:

Lana ondo egin duzunez gero, behar den bezala ordainduko dizute.

Azkenik, aditz jokatu zein jokatu gabeekin batera denbora perpausak ere egin daitezke posposizio honen bidez:

Eskolako lana eginez gero, jolas egitera joan zaitezke.

Ikusten denez, posposizio hau elementu biz dago osaturik: alde batetik, instrumentalaren marka den *-z* atzizkiak eta, bestetik, *gero* aditzondoak.

Bi elementu horiek idazteko orduan tradizioak bi bide segitu ditu: Iparraldeko idazleek bereiz idatzi izan dituzte (*-z gero*) eta Hegoaldekoek, aldiz, batera (*ezkero, azkero*).

Aipatu erabilera horiek ez dira, dena dela, posposizio honek dituen bakarrak, denbora aditzondo gisa ere aski arrunta baita, aurreko izena beti mugatua duela:

Heldu den igandeaz gero Baionako etxean aurkituko nauzu.

Irugarren umea ezkero ama asko... (Eguzkitza, *Gizarte-Auzia*, 185).

Hori guztia, eta orobat Arantzazuko txostenaz geroz nagusitu den joera kontuan hartuta, ondoko hau proposatzea erabaki du Euskaltzaindiak:

- 1. Kasu guztietan *-(e)z gero* idatz bedi: *hori eginez gero, hori egin duzunez gero.***
- 2. Orduekin, eta oro har denbora posposizio gisa, *ezkero* ere idatz daiteke: *hamarrez gero / hamarrek ezkero, zortziaz gero / zortziak ezkero, San Ferminaz gero / San Ferminak ezkero, atzoz gero / atzo ezkero.***
- 3. *Honezkero, horrezkero* eta *harrezkero* aditzondoak, era horretan idatziko dira, horrela erabili baitira euskararen literatura tradizioan, nahiz *horrezkero* aditzondoaren maiztasuna beste biena baino askoz ere apalagoa den.**

(Euskaltzaindiak, Donostian, 1995eko urtarrilaren 27an onartua)